


## Urtarrilak 25-26

### ARABA

Laudio (Goikogane) ▪ Iriso, Gongolatz. Nafarroa. Tel: 94-6725021.

### BIZKAIA

Astrabudua (Atxazpe) ▪ Candanchu. Elurretara irteera asteburu osoroko.

Basauri (Baskonia) ▪ Lunada mendatea, Porracolina (1.408 m), San Roque Rio Miera. Tel: 94-4495728.

Durango (Tabira) ▪ Larunbatean goize buelta Durangaldean. Bestalde, asteburu osorako mendiko eski irteera. Tel: 94-6203153.

Lemoa (Ganzabal) ▪ Eski irteera asteburu osoroko. Saint Laryko eski estaziora da irteera. Informazioa: 94-6313009.

Sestao (Alpino) ▪ Alto Campoo eski estazioa, Cornon (2.136 m), Boveda (2.072 m), Cueto de la Horcada (2.124 m), Hijan (2.064 m), Brañavieja. Kantabria. Tel: 94-4721379.

Sopela (Munarrikolanda) ▪ Sopela, Armintza. Tel: 696-731662.

### GIPUZKOA

Andoain (Euskalduna) ▪ Euskal Herriko ermitak. Laudio, Elorritxugana (721 m), Jesuri (749 m), Santa Marina, Orozko. Tel: 943-592232.

Azkoitia (Anaitasuna) ▪ Egino, Umandia, Otzaurte. Tel: 676-875156.

Azpeitia (Lagun Onak) ▪ Asteburu osorako eski eta mendi irteera Formigal inguruetan. Tel: 943-812025.

Donostia (C.V.Camping) ▪ Iraupen eskiko irteera asteburu osoroko. Nistos, Cap, Nestes (Hautes Pyrenees). Informazio gehiago: 943-428479.

Donostia (C.V.Camping) ▪ Uliako itsa-labarren xendaren inaugurazioa. Goiz buelta. Eguerdian hiri autobusetan egingo da Pasai San Pedrotik itzulera. Tel: 943-428479.

Donostia (Herrerako Mendizaleak, Donosti-Berri, Ametzagaina, Xabier) ▪ Mundaka, Sollube (686 m), Bermeo.

Elgoibar (Morkaiko) ▪ Urbasa inguruan zeharkaldia: Lizarragako mendatetik Bakedanora.Tel: 943-740297.

Hernani (Mendiriz Mendi) ▪ Asteburu osorako eski irteera Cauterets eta Pont d'Espagnera. Iraupen eskia eta alpinoa egiteko aukera izango da. Irteera goizeko 05:00etan Atsegindegitik. Prezioa: 50 euro bazkideentzat eta 60 euro bazkide ez direnentzat. Tel: 943-332745.

Irun (Erlaitz) ▪ Barazar, Atxuri, Arimekorta, Egiriñao, Zastegi, Pedrobaso, Basatxi, Monoiko txabola, Baias ibaia, Zuia. Tel: 943-635838.

Irun (Mendigoizaleak) ▪ Gipuzkoako Itzuliko etapa. Tel: 943-612919.

Oiartzun (Girizia) ▪ Oiartzun, Lesaka. Doneztebeko plaza, Goikoetxe, Zaldingo gaina, Artikutzako trenaren bide zaharra, Txondor plaza, Errenga lepoa, San Anton, Kopakarriko lepoa, Telleria baserria, Lindurrenborda sagardotegia. Mendiko astearen amaiera.

Pasaia (Jaizkibel) ▪ Arabako Bira. 25. etapa: Zalduondo, Andoin. Tel: 943-514700.

Zarautz (Pagoeta) ▪ Añarbe, Berdabio, Artikutza, Exkax. tel: 943-132911.

Zumaia (Inda Mendi) ▪ Orion, Candina (476 m), Orion.

### NAFARROA

Barañain (Lagunak) ▪ Arano, Mandoegi, Urto. Tel: 948-181233.

Iruñea (Anaitasuna) ▪ Unanu, San Donato, Uharte Arakil. Tel: 948-254900.

Iruñea (Gaztaroa) ▪ Mendiko astearen amaiera. Pirinioak. Aisa, Aspe (2.645 m). Izen ematea mendiko astearen barruan izango diren ekitaldietan egin daiteke. Tel: 948-143419.

Iruñea (Nafarroa Kirol Elkartea) ▪ Mendi zeharkaldia Bardeetan. Informazio gehiago: 948-224324.

## Otsailak 1-2

### ARABA

Gasteiz (Mercedes Benz) ▪ Gipuzkoako Itzulia. GR-121. Aritxulegio, Irun. Tel: 945-185128.

### BIZKAIA

Bilbo (Bilbao Alpino Club) ▪ Opakua mendatea, Arrigorrista (1.143 m), Santa Elena (1.110 m), Indiagana (1.101 m), Itxogana (1.062 m), Azazeta mendatea. Tel: 94-4337422.

Durango (Tabira) ▪ Elurretara irteera. Baqueira Beret. Teel: 94-6203153.

Gernika (Goi-Zale) ▪ Burrutxagana, Galarregi. Tel: 94-6258478.

Sestao (Alpino Club) ▪ Ilarduia, Albeiz (1.012 m), Umandia (1.229 m), Allarte (1.231 m), Araia. Tel: 94-4721379.

### GIPUZKOA

Eibar (Klub Deportiboa) ▪ Larunbatean, Sunbilla, Amaiur. Tel: 943-201904.

Errenteria (Urdaburu) ▪ Marxa Beret. Iraupen eskiko irteera. Tel: 943-527879.

Irun (Mendigoizaleak) ▪ Asteburu osoko irteera Aspera. Neguko irteera. Tel: 943-612919.

Tolosa (Alpino Uzturre) ▪ Marxa Beret. Iraupen eskiko irteera. Tel: 943-652789.

### NAFARROA

Barañain (Lagunak) ▪ Aietxu, Borrotxulo (1.264 m), Aietxu. Tel: 948-181233.

Iruñea (Anaitasuna) ▪ Irantzuko monastegia, Etxebarriko haitzak, Krezmendi, Barindano. Tel: 948-254900.

## emanaldiak

## Urtarrilak 24

Oiartzun (Girizia) ▪ Mendiko astearekin amaitzeko, Jon Belokik 'Jainkosen altzoan' proiekzioa eskainiko du gaur arratsaldeko 8:00etatik aurrera, udaletxeko pleno aretoan. Bihar, azkenik, mendiko materialaren azoka izango da Konsejupean.

Iruñea (Gaztaroa) ▪ Mendiko astearekin amaitzeko Gorka Ripodasek 'Manaslu: Izpirituen egoitza' proiekzioa emango du gaur arratsaldeko 19:45ean San Jorge ikastetxean (Juarista Kalea z/g).

## ikastaroak

## Urtarrilak 25-26

Donostia (Mendiak eta Herriak) ▪ Mendiko eskiko ikastaroa. Hastapena. Astun-Candanchu, Panticosa edo Aretten izango da ikastaroa, elur baldintzen arabera. Bestalde, goimendiko hastapen ikastaroa ere antolatu du Mendiak eta Herriak-ek. Teleran izango da. Informazioa: 948-513233.

## Urtarrilak 31 eta otsailak 1-2

Iruñea (Nafarroako Goimendi Eskola) ▪ Elur-jausien prebentzio eta sorospen ikastaroa eta ARVA aparailuaren erabilpena. Hilaren 31n hitzaldi teorikoa izango da eta otsailaren 1-2an praktikak. Prezioa: 25 euro. Izen emateak Kirol Etxean urtarrilaren 30a arte. Informazioa: 948-224683.

## Otsailak 1-2

Donostia (Gipuzkoako Goimendi Eskola) ▪ Alpinismo ikastaroa. Hobekuntza. Inguruaren eta materialaren ezagutzea, babes teknikak, aurreratze teknikak, rapelatzeko teknikak eta abar irakatsiko dira. Hamar ikaslerentzat lekua dago. Prezioa: 115 euro. 15 eta 21 urte bitarteko gazteentzat % 65eko beherapena. Informazioa eta izen emateak: 943-461440. Astelehen, asteazken eta ostegunetan 11.00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Donostia (Mendiak eta Herriak) ▪ Eski Ikastaroa.Pistatik at. Baqueira Bereten izango da ikastaroa. Bestalde, mendiko eski Ikastaroa. Hobekuntza, Astun, Panticosa, Portalet inguruetan. Azkenik, goimendi Ikastaroa. Hastapena. Tel: 948- 513233

## Otsailak 8-9 eta 15-16

Iruñea (Nafarroako Goimendi Eskola) ▪ Alpinismo ikastaroa. Informazio gehiago eta izen emateak: 948-224683.

## Otsailak 11, 12, 13 eta 16

Bilbo (Bidea Orientazio Taldea) ▪ Orientazio ikastaroa Bilboko Kirol Etxean.

**oharra:**

Urteberria dela eta, 2003ko ibilaldi, proiekzio, ikastaro eta abarren egutegia ahalik eta azkarren bidaltzea eskertuko genizueke Buzoia atal honetan lekua izan dezaten.

**EUSKALDUNON EGUNKARIA (MUNDUMIRA gehigarria)**
**Martin Ugalde Kultur Parkea**
**20140 - ANDOAIN**
**mundumira@egunkaria.com**



## Igande honetan inauguratuko dute Uliako itsas-labarren xenda

Aurreko asteburuan, Ulia ingurua garbi-garbi utzi eta gero, igande goizean inauguratuko dute, ofizialki, Uliako itsas-labarren bidezidorra. Xenda hau sasiak janda eta galduta egon zen denbora batez, Donostiako Udalak eta Vasco de Camping taldeak garbitu eta mendizaleentzat berriro egokitu zuten arte. Pasa den urtean egin zuten lan hori. Geroztik, hainbat ibiltarik egin dute bide hau eta ez dira gutxi egunero han ibiltzen direnak. Hala ere, egindako lan guztiaren ondotik, Vasco de Camping taldeak pentsatu du bidezidorrak merezi duela inaugurazioa. Antzina, Uliako biztanleek eta arrantzaleek baliatzen zuten xenda hau, aisialdirako geratu da egun. Vasco de Camping taldeak berak, zidorraren topo-gida ere kaleratu du. Bidea, labar zorrotzen gainetik doa eta ikuspegi dotoreak eskaintzen ditu. Donostian abiatu eta Pasai San Pedron bukatu, 13 kilometro ditu xendak, lau bat orduko ibilia da. Ez da, beraz, paseotxo bat. Ibilaldia goizeko 9:00etan abiatuko da Groseko Mariaren bihotza elizatik.